



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko urriaren 2a

112. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—“Nafarroa Bekak” programa (2009-2012) izeneko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

**“Nafarroa Bekak” programa (2009-2012) izeneko fiskalizazio-txostena,
Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko irailaren 2an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontuen Ganberak egindako fiskalizazio-txostena, “Nafarroa Bekak” programa (2009-2012) izenekoa, hona ERABAKIA:

1. Adieraztea jakitun dela txosten horren edukiari buruz.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2013ko irailaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**“Nafarroa Bekak” programa (2009-2012) izeneko fiskalizazio-txostena,
Kontuen Ganberak egina**

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Nafarroako bekak (4. or.).
- III. Helburua, norainokoa eta mugak (6. or.).
- IV. Ondorio orokorrak (7. or.).
 - IV.1. Kudeaketa (7. or.).
 - IV.2. Aurrekontu-betetzea (7. or.).
- V. “Nafarroa Beken” analisia (12. or.).
 - V.1. Deialdien araudi orokorra (12. or.).
 - V.2. 2009ko deialdia: alderdi orokorrak (15. or.).
 - V.3. 2010eko deialdia: alderdi orokorrak (16. or.).
 - V.4. 2011ko deialdia: alderdi orokorrak (16. or.).
 - V.5. 2012ko deialdia: alderdi orokorrak (17. or.).
 - V.6. Diru-sarrerak (18. or.).
 - V.7. Deialdietako espedienteen azterketaren eta egindako laginketaren emaitzak. (19. or.).
1. eranskina. Beken eta kokalekuen zerrenda (23. or.).
2. eranskina. Beketarako oinarrien alderaketa (26. or.).

I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2012ko irailaren 17an egindako bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Kontuen Ganberari fiskalizazio txosten bat eskatzea "Nafarroa Beken" kudeaketari eta beka horiek emateari buruz, Ezkerra-Ezkerrearen parlamentu-taldearen idazkian jasotako terminoetan; izan ere, honakoa eskatu zuen talde horrek: *"fiskalizatzea zuzena den "Nafarroa Bekak" programaren deialdiak egiteko eta bekak emateko espedienteen aurrekontu-betetzea eta espediente horiek diru-laguntza eta laguntza publikoen arloko legearen arabera diren, 2009tik 2012ra bitarteko aurrekontu ekitaldietan"*.

Nafarroako Kontuen Ganberak, 2012ko azken hiruhilekoan eskari hori sartu zuen urte horretarako lan programan.

Azterketa-lana auditoriako teknikari batek eta bi auditorek osatutako taldeak egin zuen, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin. Azterketa-lana 2012ko azarotik 2013ko urtarrila bitarteko hilabeteetan egin zen.

Eskerrak ematen dizkiegu Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuko Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren Zuzendaritza Nagusiko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

Txostenak lau atal ditu, sarrera honetaz gainera. Bigarrenean, "Nafarroa Bekak" izenekoei buruzko laburpen txiki bat egin dugu. Hirugarrenean, egindako lanaren helburuak, norainokoak eta mugak azaldu ditugu. Laugarrenean, ondorio eta gomendio orokorrak agertzen dira. Bosgarrenean, aurreko ataleko ondorioak zabaldu eta garatzen dira.

II. NAFARROA BEKAK

Nafarroako 2008-2011 Nazioarteko Planak (NNP) bost ardatz estrategiko dauzka, horietako bakoitza egungo egoeraren diagnosian eta helburu estrategikoan jasotako jarduketa-premien arabera orientatua.

- Hezkuntza eta gizartea.
- Nafarroak kanpoan duen irudi ekonomikoa.
- Aliantzak eta sareak.
- Europako eta nazioarteko proiektuak.
- Enpresaren nazioarteratzea.

1. ardatzeko 2. linea, "Hezkuntza eta gizartea" izenekoak, "talentua harrapatzea" du xede.

2. lerroko ekintzen artean, 1.2.2 ekintza dago, honako izenburua duena: "*Nafarroa Bekak* programa abian jartzea".

Programa horren helburua da lortzea Nafarroako unibertsitateetan espediente onenak dauzkatenek aukerak izan ditzatela graduondoko ikasketak egiteko atzerriko bikaintasuneko zentroetan eta, gero, Nafarroari eman diezaioten zentro horietan eskuratutako prestakuntza eta talentu horiek. Zehazki, urtero bi urteko iraupena duten 40 bekara iritsi nahi da, urteko 40.000 euroko dotazioarekin finantziazioaldiaren amaieran.

Jardueretan jasotzen da urtero egresatuentzako beken deialdi bat egitea, masterrak edo graduondoko ikasketak egin ditzaten nazioartean izen aitortua duten atzerriko bikaintasuneko zentroetan. Bekak hartuko dituzten pertsonak hautatzeko beka-kupo bat ezarriko da interesekotzat jotzen diren hainbat titulaziotarako. Halaber, masterraren kalitatea hartuko da kontuan.

Prestakuntza amaitu ondoren, beka hartu duen pertsonak epe bat izanen du, bost urtera arte ere iritsi daitekeena, bere lanbide-karrera atzerrian garatu ahal izateko. Epe horretatik aurrera, Nafarroara itzuli beharko du edo, bestela, jasotako diru-zenbatekoak itzuli beharko ditu.

Honakoak dira Nafarroako Nazioarteko Planaren ekintza honen entitate arduradunak. Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentua (Enpresa Zuzendaritza Nagusia) eta Ekonomia eta Ogasun Departamentua (Nazioarteko Garapeneko Zuzendaritza Nagusia).

2008-2011 aldirako aurrekontua 5.440.000 eurokoa da.

Beken lehenengo deialdia 2009an egin zen. Ondoren urtero egin da deialdia, 2012ra arte.

Egindako deialdietan aldaketak egin izan dira, baina, funtsean, beka ematen zaizkie Nafarroako ikasleei edo Nafarroarekin lotura dutenei atzerriko unibertsitateetan graduondoko ikasketak egiteko, betiere Nafarroako Foru Komunitatera itzultzeko betebeharrarekin, graduondoko ikasketak bukatu eta bost urteko epea iragan baino lehen, beren lanbidean gutxienez ere lau urtez aritzeko. Bekek ikasketak (matrikula), egonaldia eta bidaiak finantzatzen dituzte, kopuru desberdinekin, deialdiaren arabera.

Bekak adjudikatzeko honakoak hartzen dira kontuan: ikasketa espedientea (balioaren ehuneko 60), graduondoko master programaren kalitatea (ehuneko 25) eta programak Nafarroarentzat daukan interes estrategikoa (ehuneko 15). Balorazio horiek 2010etik 2012ra bitarteko deialdiei dagozkie.

Programaren kalitateari buruzko balorazioa kasuko programa deialdian adierazitakoetatik bat izatearen arabera egin da; bestela, Unibertsitate Publikoko adituek baloratzen dute.

Deialdietan, honako kupoak ezarri dira:

- Zientzia eta teknologia6
- Enpresa zientziak6
- Gizarte zientziak eta zientzia juridikoak ..6
- Osasun zientziak4
- Arteak eta giza zientziak:2

Beken kopurua eta haien zenbatekoa, eurotan adierazia, honakoa da deialdi bakoitzean:

Urtea	Beka kopurua	Diru-kopurua
2009	20	850.941
2010	26	923.385
2011	33	1.298.573
2012	22	631.590
Guztira	101	3.704.490

Erresuma Batua, 37 bekadunekin, eta Estatu Batuak, 22 bekadunekin, dira bekadun gehien hartzen dituzten herrialdeak.

Orokorrean, "Nafarroa Bekek" arau gisa dute Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea, eta, berariazko izaeraz, berriz, deialdi bakoitzaren garapeneko araua. Hauexek dira arau horiek:

- Otsailaren 9ko 19/2009 Foru Agindua, 2009. urteko deialdirako.
- Irailaren 29ko 165/2009 Foru Agindua, 2010. urteko deialdirako.
- Azaroaren 9ko 152/2010 Foru Agindua, 2011. urteko deialdirako.
- *Martxoaren 30eko 36/2012 Ebazpena, 2012. urteko deialdirako.*

III. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK

Txosten honen helburua da erantzuna ematea arestian aipatutako parlamentu-eskariari, eta zehazki:

- Beka hauek legezkotasunaren araberakoak diren egiaztatzea.
- “Nafarroa Bekak” izenekoaren gaineko kontrola eta beka horien kudeaketa.
- “Nafarroa Beken” kontusailen aurrekontu-betetzea egiaztatzea, 2009-2012 aldian.

Lana egiteko, 2009-2012 urteetako deialdien espedienteetako dokumentazioa aztertu dugu, bai eta Nafarroako Gobernuaren kontabilitate-kontusailak, non gastu horiek erregistratzen baitira, eta Kontu-hartze Orokorrak gai honi buruz emandako txostenak ere.

Lan hau egiteko, honako printzipio eta arau hauei jarraitu zaie: Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsi eta Nafarroako Kontuen Ganberak bere fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren kontu-ikuskaritzari buruzko fiskalizazio-printzipioak eta fiskalizazio-arauak, lan honetarako egoki iruditu zaizkigun egokitzapenak eginik.

Lan honek muga batzuk izan ditu, zeren eta ezin izan baitugu egiaztatu “Nafarroara itzultzearen” baldintza, zeinetarako bost urteko epea ezartzen baita, zeren eta, logikoa denez, onuradunak oraindik ere baldintza hori betetzeko epearen barruan baitaude.

IV. ONDORIO OROKORRAK

Epigrafe honetan, egindako lanetik ateratzen diren ondorio nagusiak aurkezten ditugu. Ondorio hauek bi azpi-ataletan jaso ditugu: lehenengoa egindako kontrol eta kudeaketari eta bekak legezketasunaren araberakoak izateari buruzkoa da; bigarrena aurrekontu-betetzeari eta bekak direla-eta urtetan egin den xehakapenari buruzkoa da.

IV.1. KUDEAKETA

1. Programa honen bitartez, 17 herrialdetan ikasteko bekak kudeatzen ari dira, funtzionamenduarau desberdinekin. Kudeaketa honen konplexutasuna eta izandako esperientzia direla-eta, aldaketa batzuk egin dira arauetan, sortzen joan diren inguruabarrei egokitze aldera.

2. Ikasketa espedienteak eta masterraren kalitatea baloratzen dituen beka-programa bat da, eta, horrenbestez, ez ditu aintzat hartzen eskatzaileen baldintza sozio-ekonomikoak.

3. Bekak emateko foru aginduan ez dira beti eranskin guztiak jasotzen; izan ere, onuradunen zerrenda, onartu ez diren hautagaien zerrenda, itxaronzerrendan dauden hautagaien zerrenda eta abarrekoak jaso beharko lirateke. Ez da espedientei buruzko eredu osaturik sortu; hori dela eta, batzuetan, dokumentazioa hainbat artxibotan dago, eta ez dago dokumentazio osoari eta haren kokapenari buruzko aurkibiderik.

4. Ezin dira beti identifikatu prozesuan parte hartu duten ebaluazio-batzordeko kideak, eta, horrenbestez, ezin izan da egiaztatu batzordekide horiek izendatutakoekin bat datozen.

5. Ez dira jasota gelditzen "Nafarroarentzako interes estrategikoa" kontzeptuaren baremazioa egiteko jarraitu diren irizpideak, nahiz eta adierazi diguten Moderna Planaren irizpideei jarraitzen zaiela.

6. Ez dira beti bete aurretik ezarritako baldintza guztiak; esate baterako: ebazpen- eta jakinarazpen-epaek, jakinarazpenak jaso izatearen agiria edo argitarapena.

7. Onuradunen erdiak baizik ez du aprobetxamenduari buruzko egiaztagiria arauetan ezarritako epean aurkezten; gainerako kasuetan, egiaztagiria errekerimenduak egin ondoren aurkezten dira.

8. Ez da metodo sistematikorik ezarri onuradunen lanbide-karreraren jarraipena egiteko, ez eta bost urteko epean foru erkidegora itzultzeko betebeharraren jarraipena egiteko ere; izan ere, azken baldintza hori ez betetzea diru-laguntzak itzuli behar izateko arrazoia izanzen litzateke. Gogorazi behar da bekadunen lehenengo promozioa 2009-2010 ikasturtekoa izan zela; hori dela eta, bost urteko epea 2015ean amaituko da.

9. 21 errekurtsio aurkeztu dira –gure ustez kopuru handia da–, eta, gure ustez, horrek erakusten du alor hau arautzeko zailtasuna dagoela. Horietatik, daukan munta ekonomikoa dela eta, nabarmentzekoa da 2011ko deialdian bost onuradun berri sartzea eragin zuena; haren hasierako adjudikazioa oker egin zen, eta horrek berarekin ekarri zuen hasiera batean aurreikusitako onuradun kopurua gainditzea. Errekurtsio horren arrazoiak honakoak izan ziren: ebazpena jakinarazteko datarekin, akatsak zuzentzeko epearekin eta eskatzaileak masterrean behin betiko onartu dutela erakusteko unearrekin arazoak izatea.

IV.2. AURREKONTU-BETETZEA

10. 259 eskatzaileari 101 beka eman zaizkie. Guztira, 3.704.522 euro egiten dute, eta honako xehakapena dute, urteen arabera. 1. eranskinean, onuradunen banakako datuak ikus daitezke.

Urtea	Eskatzaileak	Emandako bekak	Diru-kopurua
2009	69	20	850.941
2010	49	26	923.417
2011	67	33	1.298.574
2012	74	22	631.590
Guztira	259	101	3.704.522

Diru-kopurua, eurotan, honako kontzeptu hauen artean banatzen da:

Kontzeptua	Diru-kopurua
Matrikula	1.906.729
Ostatua eta mantenua	1.699.556
Bidaia-poltsa	98.237
Guztira	3.704.522

2007-2013 programa operatiboaren barruan, Europako Gizarte Funtsetik 175.600 euro jaso dira, zeinek 2009ko deialdiko gastuen ziurtatutako kopuruaren ehuneko 50 egiten duten.

11. Diru-kopuruen arabera, 101 beka horiek honela xehakatzen dira.

2009-2012 deialdietako beken diru-kopuruaren araberrako tartekak.

Diru-kopurua	2009		2010		2011		2012		Guztira	
	Zenbat beka	Guztizko diru-kopurua	Zenbat beka	Guztizko diru-kopurua	Zenbat beka	Guztizko diru-kopurua	Zenbat beka	Guztizko diru-kopurua	Zenbat beka	Guztizko diru-kopurua
16.000 euro baino gutxiago	1	13.798	7	90.010	2	31.456	1	11.432	11	146.697
16.000 euro eta 26.000 euro bitarte	6	123.940	7	127.443	14	291.081	10	214.965	37	757.430
26.000 euro eta 36.000 euro bitarte	4	126.830	4	120.616	5	143.918	4	125.193	17	516.557
36.000 euro eta 46.000 euro bitarte	4	164.999	0	0	3	117.305	7	280.000	14	562.304
46.000 euro eta 56.000 euro bitarte	2	98.284	1	50.189	1	50.836	0	0	4	199.308
56.000 euro eta 66.000 euro bitarte	0	0	4	241.132	1	64.362	0	0	5	305.494
66.000 euro eta 76.000 euro bitarte	0	0	0	0	2	134.874	0	0	2	134.874
76.000 euro eta 86.000 euro bitarte	0	0	1	80.951	3	240.555	0	0	4	321.506
86.000 euro eta 96.000 euro bitarte	0	0	1	87.342	1	86.338	0	0	2	173.680
96.000 euro baino gehiago	3	323.090	1	125.734	1	137.847	0	0	5	586.671
	20	850.941	26	923.417	33	1.298.573	22	631.590	101	3.704.522

	2009	2010	2011	2012
Beken batez besteko diru-kopurua	42.547	35.516	39.351	28.709
Beka txikiena	13.798	9.610	15.636	11.432
Beka handiena	113.212	125.734	137.847	40.000

12. Emandako 101 beketatik, 64k urtebete baino iraupen laburragoa dute eta 37k urtebetekoa baino iraupen luzeagoa dute. Hartara:

Iraupena	Zenbat beka	Diru-kopurua	Batez besteko diru-kopurua
Urtebete baino gutxiago	64	1.818.963	28.421
Urtebete baino gehiago	37	1.885.559	50.961
Guztira	101	3.704.522	36.678

13. 101 bekadun horiek 17 herrialdetan ari dira ikasketak egiten; herrialde horien artean, Erresuma Batua, 37 bekadunekin, eta Estatu Batuak, 22 bekadunekin, dira ikasle gehien erakartzen dituztenak. Ondotik, Australia dago, zortzi bekadunekin.

14. Batetik laura bitarteko eskala baten arabera baloratzen dira espedienteak. Honakoak izanen lirateke baliokidetasunak:

- 1-10 eskala 1-4 eskala
- a) Gainditua: 5 eta 6,9 bitarte bat eta bi bitarte
- b) Oso ongi: 7 eta 8,9 bitarte bi eta hiru bitarte
- c) Bikain: 9 eta 10 bitarte 3 eta lau bitarte

Emandako 101 beka direla eta, honako balioak ageri dira espedienteetan, jakintza-arloen arabera sailkatuta:

Espedientea (noten baliokidetasuna)	Jakintza arloa	Beka kopurua	Beketan guztira emandakoa	Beken batez besteko diru-kopurua
Gainditua (1 eta 2 bitarte)	Artea eta giza zientziak	4	243.457	60.864
	Zientzia eta teknologia	24	738.240	30.760
	Osasun zientziak	3	121.373	40.458
	Gizarte zientziak eta zientzia juridikoak	2	111.854	55.927
	Enpresa zientziak	5	310.794	62.159
Gainditua, guztira (1 eta 2 bitarte)		38	1.525.718	40.150
Oso ongi (2 eta 3 bitarte)	Artea eta giza zientziak	8	267.774	33.472
	Zientzia eta teknologia	7	143.495	20.499
	Osasun zientziak	5	128.722	25.744
	Gizarte zientziak eta zientzia juridikoak	14	578.400	41.314
	Enpresa zientziak	15	586.520	39.101
Oso ongi, guztira (2 eta 3 bitarte)		49	1.704.910	34.794
Bikain (3 eta 4 bitarte)	Artea eta giza zientziak	1	18.425	18.425
	Zientzia eta teknologia	3	60.614	20.205
	Osasun zientziak	1	33.220	33.220
	Gizarte zientziak eta zientzia juridikoak	5	126.464	25.293
	Enpresa zientziak	4	235.170	58.793
Bikain, guztira (3 eta 4 bitarte)		14	473.894	33.850
		101	3.704.522	36.678

Beken ehuneko 38 bat eta bi bitarteko balorazioa duten espedienteetara emateko arrazoia da arloen arabera kupo batzuk badaudela, eta ikasketa batzuek zailtasun-gradu handiagoa dutela.

15. Jakintza arloen arabera, honela banatzen dira beka:

Arloa	Zenbat beka	Diru-kopurua	Batez besteko diru-kopurua
Artea eta giza zientziak	13	529.656	40.743
Zientzia eta teknologia	34	942.349	27.716
Osasun zientziak	9	283.315	31.479
Gizarte zientziak eta zientzia juridikoak	21	816.718	38.891
Enpresa zientziak	24	1.132.484	47.187
Guztira	101	3.704.522	36.678

Taulatik ondorioztatzen den bezala, beken ehuneko 42 zientzia- eta osasun-ikasketei dagozkie; ehuneko 45 gizarte zientziei, zientzia juridikoei eta zientzia ekonomikoei; eta ehuneko 13, azkenik, arteko eta giza zientzietako ikasketei.

16. Master programak Nafarroarentzat daukan interes estrategikoari erreparatuta, honela xehaka daitezke beka:

Puntuazioa	2009	2010	2011	2012	Guztira	Diru-kopurua	Batez besteko diru-kopurua
15		20	17	17	54	1.790.546	33.158
10*	12	-	10	2	24	1.104.954	46.040
5	8	6	6	3	23	809.022	35.175
	20	26	33	22	101	3.704.522	36.678

* Gehieneko puntuazioa 2009an.

Kasuko programak Nafarroarentzat duen interes estrategikoari dagokionez, beken ehuneko 66k baloraziorik handiena dute, kontuan hartzen badugu 2009an balorazio hori hamar puntuko gehieneko puntuazio baten arabera egin zela.

17. Master programaren kalitatearen arabera, honela xehaka daitezke beka:

Puntuazioa	2009	2010	2011	2012	Guztira	Diru-kopurua	Batez besteko diru-kopurua
25		15	19	11	45	1.891.905	42.042
20*	8		4	6	18	704.659	39.148
17,5		5			5	97.773	19.555
15			6	4	10	271.666	27.167
10		6	4	1	11	318.573	28.961
0	12				12	419.946	34.996
	20	26	33	22	101	3.704.522	36.678

* Gehieneko puntuazioa 2009an.

Masterraren kalitateari dagokionez, gehieneko puntuazioa beken ehuneko 53k lortu zuten. Zero puntuazioko kasuak gertatu ziren 2009an bi puntuazio baizik ez zirelako egin: puntuazio altuena 20 puntukoa izan zen eta gainerakoak 0 puntukoak izan ziren.

18. Programak Nafarroarentzat duen interes estrategikoaren datuak, programaren kalitateari buruzko datuak eta espedienteari buruzkoak batuz gero, honakoa da emaitza:

Programaren interes estrategikoaren, programaren kalitatearen eta espedientearen (noten baliokidetasuna) arabera:

Interesa	Programaren kalitatea	Gainditua	Oso ongi	Bikain	Beka kopurua	Beketan guztira emandakoa
15	25	11	19	4	34	1.324.685
	20	2	2	2	6	152.890
	17,5	3	1		4	82.988
	15		4	2	6	170.238
	10	4			4	59.745
Interes estrategikoa dela eta 15 puntu jasotakoak		20	26	8	54	1.790.546
10*	25	5	1		6	321.102
	20*	3	2	1	6	381.832
	15		2	1	3	63.658
	10	1			1	26.695
	0	2	5	1	8	311.667
Interes estrategikoa dela eta 10 puntu jasotakoak		11	10	3	24	1.104.954
5	25	2	2	1	5	246.119
	20	3	2	1	6	169.937
	17,5		1		1	14.784
	15		1		1	37.770
	10	2	3	1	6	232.133
	0		4		4	108.280
Interes estrategikoa dela eta 5 puntu jasotakoak		7	13	3	23	809.022
2009-2012 deialdiak, guztira		38	49	14	101	3.704.522

* Gehieneko puntuazioa 2009an.

Datu hauetatik ondorioztatzen denez, lau dira irizpide guztietan puntuazio handiena lortu duenak.

Egindako lanaren ondorioz, honako hau gomendatzen dugu:

- Datozen deialdietan araudia zehaztea, halako moduz non puntu gatazkatsuak argitu eta saihestuko diren; esate baterako, onarpen mota (behin betikoa edo baldintzapekoa), aurkeztu beharreko justifikazioa eta horretarako epeak, eta ebazpenak beren osotasunean argitaratu eta jakinaraztea.

- Jasota uztea irizpideak nola baloratuko diren subjektibotasunerako tarte zabala dagoen kasuetan, irizpide horiek modu automatikoan aplikatzen ez direnetan.

- Sistematika bat ezartzea onuradunen betebeharren jarraipena egiteko, bereziki Nafarroara bost urteko epean itzultzeko betebeharrari dagokionez; baldintza hori ez betetzea, izan ere, jasotako dirua itzultzeko arrazoia da.

- Espedienteak osatzea sortzen den dokumentazio guztiarekin, eta saihestea dokumentazio hori artxibo batean baino gehiagotan egon dadila.

- Deialdi bakoitzari buruzko oroitidazki orokor bat egitea, non jasoko baitira aurkeztutako eskaerak, emandakoak, onartu ez direnak, aldaketak eta haien kudeaketari eta ordainketari dagokien guztia.

V. "NAFARROA BEKEN" ANALISIA

Atal honetan, datu eta informazio batzuk aurkezten ditugu "Nafarroa bekekin" lotutako gai batzuei buruz, aurreko ataleko ondorioak osatze aldera.

V.1. DEIALDIEN ARAUDI OROKORRA

"Nafarroa bekei" buruzko araudiak aldaketak izan ditu bekek indarrean egon diren urteetan zehar. Ondoren, araudi horrek alderdi garrantzitsuenak transkribatzen ditugu, edo, gutxienez ere, aldaketa garrantzitsuenak izan dituztenak.

Beka hauen helburua da onuradunek atzerriko unibertsitateetan master programak behar bezalako aprobetxamenduekin egitea, eta handik Nafarroako Komunitatera itzultzean edo ikasketak amaitu ondoren estrategikoak diren ardurazko lanpostuetan arituz, Nafarroako enpresa sarea eta gizartea, oro har, nazioarteratzen laguntze aldera.

Beken helburua goi mailako tituludunak edo diplomadunak, Nafarroari lotuak, atzerrian emandako Master programetan prestatzea da, beren lanbide jarduera Nafarroako Foru Komunitatearen onerako gara dezaten, dagokien enpresa edo erakundeetan sartuz edo Nafarroarentzat interes estrategikokotzat jotzen diren lanpostuetan arituz.

2009an beka ematea bateraezina zen funts publiko zein pribatuekin finantzatutako beste beka edo laguntza batzuekin, bai eta interesdunaren kontratu bidezko loturak dakartzan soldata edo lansariekin ere. 2011ko deialdian, zehaztu zen beka eskuratzea bateraezina izanen dela lanbide edo ikerketa jarduerekin, horiek onuradunari Master programako klaseetara joatea eragozten diotenean edo haren aprobetxamendua murrizten dutenean. Hortaz, lanaldi partzialeko jarduerak egin ahalko dira soilik, baldin eta onuradunaren titulazioari lotuak ez badira. 2012an, berriz, funtsezko aldaketa bat egiten da, zeren eta ezartzen baita bateragarriak izanen direla funts publiko zein pribatuekin finantzatutako bestelako beka edo laguntzekin, jarduera bererako ematen badira. Aldaketa horren justifikazioa da beken gehieneko kopurua 40.000 eurokoa izanen dela. Nolanahi ere, onuradunak Nazioarteko Proiekzioaren Zerbitzuari nahitaez jakinarazi beharko dio diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko bestelako laguntzak jaso dituela. Beka eskuratzea bateragarria izanen da onuraduna Master programara joatea eragozten ez duten edo haren aprobetxamendua murrizten ez duten lanbide edo ikertze jarduerekin, betiere Diru-laguntzei buruzko Foru Legeko 16.3 artikuluan ezarritako mugak aintzat harturik.

Honakoak dira onuradunek bete beharreko baldintzak:

- a) Nazionalitate espainiarra izatea edo Europar Batasuneko estaturen batekoa.
- b) Bi egoera hauetako batean behintzat egotea:
 - Nafarroan jaioa izatea.
 - Administrazio auzotasuna Nafarroan izatea eskabidea aurkezten den unean. 2012tik aurrera, bost urteko antzintasuna eskatzen da.
 - Nafar izaera politikoa izatea, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Foru Legearen 5. artikuluan xedatutakoarekin bat, eta izaera hori dagokion Espainiako Kontsuletxean egiaztatzea. 2012ko deialdian baldintza hori desagertzen da.
 - Eskabidea aurkeztu baino lehenagoko urtean zerbitzuak inoren konturako langile gisa etengabe eman izana egoitza Nafarroan duen enpresa edo erakunde batean.
- c) Bi egoera hauetako batean behintzat egotea: unibertsitate ikasketa ofizialen titulua edukitzea edo titulu hori eskatu izana (atzerriko unibertsitate baten goi mailako titulua edukiz gero, titulu hori beka eskatzerakoan aurkeztu beharko da, Espainiako Hezkuntza Ministerioak ofizialki baliokidetuta), Masterra zein unibertsitateetan egin nahi den, unibertsitate horrek eskatzen duen lizentziatura, diplomatura edo titulua, dagozkion eskubideak abonatuta, edo bestela, lehen adierazi diren titulazioetako bateko azken ikasmilan matrikulatuta egotea; beka onartzeko unean ikasketak amaitu izana egiaztatu beharko da.
- d) Unibertsitate ikasketak –graduondokoak ez– deialdia argitaratzen den egunaren aurreko bost urtean, gehienez, bukatuak izatea, 2009ko deialdiaren arabera; zazpi urte, 2010ekoaren arabera; hamabost urte, 2011koaren arabera; eta hamar urte, 2012koaren arabera.

Ondorio horietarako bakarrik, ziurtagiri akademikoan agertzen den data izanen da ikasketen bukaerako data.
- e) Kasuko deialdiko eranskinean aipatzen diren unibertsitateetako baten master programa batean onartua izatea. Ebaluazio eta Hautapen Batzordeak beste Unibertsitate edo goi mailako ikastetxe batzuetako Master programei dagozkien eskabideak aintzat hartu eta baloratuko ditu, baldin eta izangaiak programaren izen ona egiaztatzen badu. Programa hasi aurretik onarpena justifikatzeko baldintza ezartzen ahalko da onuradun izaera lortzeko.

Onuradun izaera lortzeko baldintza izanen da jomugako unibertsitateak ikaslea onartu izatea. Izan diren deialdietan, baldintza hor oinarrietako bi artikulutan jaso izan da, onuradunei buruzkoetan eta aurkeztu beharreko dokumentazioari buruzkoetan. Hartara:

- 2009an, exijitzen da master programa batean behin betiko onartuta izatea edo baldintzapean onartuta izatea –onarpen hori, betiere, deialdia ebatzi aurretik bete beharko da–.
- 2010ean eta 2011n, exijitzen da master programa batean behin betiko onartuta izatea. Hori, nolahi ere, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den unean bete beharko da.
- 2012an, exijitzen da master programa batean behin-behinekoz edo behin betiko onartuta egotea. Onuradun izaera lortzeko baldintza izanen da behin betiko onarpena egiaztatzea.

Honakoak dira bekan sartzen diren kontzeptuak:

- a) Matrikula. 2009an, 2010ean eta 2011n osorik ordaintzen da.
- b) Ostatua:
 - b1) 2009an, 6.500 euro lauhileko bakoitzeko.
 - B2) 2010ean eta 2011n, 1.500 euro eskola-hilabete bakoitzeko.
 - B3) 2012an, 12.000 euro eskola-hilabete bakoitzeko.
- c) Joan-etorriak:
 - c1) Bi lauhilekoan behin joan-etorri bat, 2009an.
 - C2) Bi seihilekoan behin joan-etorri bat, 2010ean, 2011n eta 2012an.

2012an, 40.000 euroko gehienezko diru-kopuru bat ezarri zen; horrenbestez, joan-etorriaren eta ostatu-gastuen arteko aldea da matrikula ordaintzeko geratzen dena.

Beka kopurua aurrekontuan dagoen diruaren arabera izanen da. 2009an, 20 bitarte; 2010ean, 30 bitarte; 2011n esaten da 30 izanen direla; eta 2012an, kreditua amaitu arte eman daitezkeenak.

Ebaluazio eta hautapen batzorde bat sortzen da, non Nafarroako Gobernuko eta unibertsitateetako kideek parte hartzen baitute.

Hauexek dira balorazio-irizpideak:

Urtea	Espedientea	Programaren kalitatea	Interes estrategikoa
2009	70	20	10
2010	60	25	15
2011	60	25	15
2012	60	25	15

Hautapen prozesurako, deialdi bakoitzean jakintza-arloen arabera postuen gutxienezko zenbateko bat ezartzen da.

Deialdi guztietan ezartzen da ezen onuradunen batek beka onartzen ez badu, puntuazioaren arabera hurrenkeran dagokion hurrengo izangaiari deituko zaiola.

Onuradunen betebeharren artean, honakoak azpimarratzen ditugu:

- Programa aprobetxamenduz burutu dutela egiaztatzea.
- Foru erkidegora itzultzea graduondoko ikasketak bukatu eta bost urteko epea iragan baino lehen, beren lanbidean gutxienez lau urtez aritzeko.

Ordainketak onuradunari egiten zaizkio, salbu eta matrikulari dagokiona, zeina, lehenengo hiru deialdietan, zuzenean unibertsitateari egiten baitzitzaion.

Bekak nola egiaztatu behar diren eta haien dirua itzultzeko kasuak ezartzen dira. Hauexek dira:

- a) Laguntza lortzearen, eskatutako baldintzetan gezurra esatea edo laguntza lortzea galaraziko luketen datuak ezkatzea.

b) Atzerriko zentrorra ez agertzea, prestakuntza programa bertan behera uztea edo programa behar bezala ez aprobetxatzea.

c) Justifikazio betebeharra ez betetzea edo behar bezala ez justifikatzea.

d) Foru erkidegora itzultzeko aurrez ezarritako betebeharra ez betetzea.

2. eranskinean, deialdi guztien arauen alderaketa-taula bat ageri da.

V.2. 2009ko DEIALDIA: ALDERDI OROKORRAK

Nafarroako Gobernuaren 2009ko otsailaren 2ko erabakiz, baimena eman zen urte anitzeko 600.000 euroko gastua egiteko 2009an; 2010erako, berriz, 800.000 euroko gastua, eta 2011rako, azkenik, 200.000 euroko gastua.

Otsailaren 9ko 19/2009 Foru Aginduak 2009ko "Nafarroa Beken" deialdia onetsi zuen, bai eta deialdi hori betetzeko oinarriak ere. Xedapen gehigarri bakarrean ezartzen da 20 beka bitarte emanen direla, aurrekontuan dagoen diruaren arabera. Apirilaren 23ko 62/2009 Foru Aginduaren bidez, oinarri horiek aldatu ziren, eta haien esparrua diplomadunak edo haien baliokideak ere hartzeko zabaldu zen.

69 eskaera aurkeztu ziren, eta 20 beka eman ziren. Hasierako diru-kopurua 726.355 eurokoa izan zen, 2009-2011 urteen artean banatzeko. 35 eskaera, berriz ez ziren onartu, eta 14 eskaera itxaron zerrendan geratu ziren. Eranskin hori ez zen beka emateko foru aginduan ageri.

Hasierako beken emateari buruz zortzi aldaketa egin dira, azkenekoa 2010-12-27an.

Aldaketa garrantzitsuenak honako hauen ondorioz egin dira:

- Postu bat zabaltzea, zeren eta onartu ez zen eskatzaile batek baldintzak bete egiten baitzuten.
- Bi onuradunek uko egitea eta itxaron zerrendako beste hainbeste bekadunen artean sartzea.
- Onuradunetako bat, azkenean, ez zuten kasuko unibertsitatean onartu.
- Gainerako aldaketak diru-zenbatekoetan eginiko doikuntzei dagozkie, eta matrikulen prezioengatik, iraupeneko hilabeteetan aldeak egoteagatik edo beka eman zirenetik ordainketa egin zenera txanponaren trukean zeuden aldeengatik gertaturiko doikuntzen ondoriozkoak dira.

Aldaketa horiekin ere, beken behin betiko kopuruak 20 izaten jarraitzen du.

Aldaketa horiek egin ondoren azkenean eman den zenbatekoa 850.941 eurokoa da.

Honakoak dira eskatzaileak eta azkenean emandako beka, jakintza-arloen arabera antolatuta:

	Eskatzaileak	Emandako beka
Teknologia	19	4
Biomedikuntza	5	2
Arteak eta giza zientziak	9	2
Gizarte zientziak	18	7
Enpresa zientziak	17	5
Zientziak	1	-
	69	20

Amaierako ordainketak 790.447 eurokoak izan ziren; hau da, emandakoa baino 60.494 euro gutxiago. Kasu guztietan ordainketak amaieran emandako beken diru-kopurua baino txikiagoak dira, salbu eta beka batean, non errekurso bat tarteko ostatu-gastuetarako ekarpen handiagoa baietsi baitzen.

Hamar errekurso aurkeztu ziren. Errekurto-egileetako batek atzera egin zuen; beste baten errekurtoa baietsi zen, eta 6.500 euro gehiago aitortu zitzaizkion, ikasmila luzeagoa izateagatik; gainerako zortzi errekursoak ezetsi egin ziren. Zortzi horietatik batek administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkeztu zuen, eta errekurtoa baietsi zitzaion. Hori dela eta, 6.500 euro gehiago eman zitzaizkion, ikasmila luzeagoa izateagatik. Errekurtoa ezetsitako beste bati, 3.250 euro gehiago eman zitzaizkion, hasierakoak baino ikasketa-hilabete gehiago egin zituela egiaztatuta baitzuen.

V.3. 2010eko DEIALDIA: ALDERDI OROKORRAK

Nafarroako Gobernuaren 2009eko irailaren 28ko erabakiz, baimena eman zen urte anitzeko 600.000 euroko gastua egiteko 2010ean; 2011rako, berriz, 800.000 euroko gastua, eta 2012rako, azkenik, 100.000 euroko gastua.

Irailaren 29ko 165/2009 Foru Aginduak 2010eko "Nafarroa Beken" deialdia onetsi zuen, bai eta deialdi hori betetzeko oinarriak ere.

Xedapen gehigarri bakarrean ezartzen da 30 beka bitarte emanen direla, aurrekontuan dagoen diruaren arabera.

49 eskatzaile aurkeztu ziren eta 30 beka eman ziren; horietatik, hamar baldintzapean onartu ziren, 911.325 euroko hasierako zenbateko batekin; 2010-2012 urteetarakoak dira. 18 eskaera ez ziren onartu. Bekak emateko foru aginduan eranskin gehiagorik agertzen ez den arren, eskatzaile bat itxaron zerrendan geratu zen.

Hasierako beken emateari buruz zazpi aldaketa egin dira, azkenekoa 2012-12-31n.

Aldaketa garrantzitsuenak honako hauen ondorioz egin dira:

- Bi onuradunek ukoa aurkeztu zuten eta itxaron zerrendako onuradun bakarra sartu zen bekadunen artean.
- Baldintzapeko onarpena zuten bi onuradunek ez zuten behin betiko onarpenaren egiaztagirik aurkeztu.
- Onuradun batek jakinarazi zuen beste unibertsitate batera joanen zela beste master bat ikastera, eta beka kendu zitzaion.

Aldaketa horiekin, beken behin betiko kopurua 26 da.

• Gainerako aldaketak diru-zenbatekoetan eginiko doikuntzei dagozkie, eta matrikulen prezioetan izandako okerrengatik, iraupeneko hilabeteetan aldeak egoteagatik edo bekak eman zirenetik ordainketa egin zenera txanponaren trukean zeuden aldeengatik gertaturiko doikuntzen ondoriozkoak dira.

Aldaketa horiek egin ondoren azkenean eman den zenbatekoa 923.417 eurokoa da.

Honakoak dira eskatzaileak eta azkenean emandako bekak, jakintza-arloen arabera antolatuta:

	Eskatzaileak	Emandako bekak
Teknologia	23	14
Biomedikuntza	4	2
Arteak eta giza zientziak	8	6
Gizarte zientziak	5	1
Enpresa zientziak	5	3
Sailkatu gabeak	4	-
	49	26

Amaierako ordainketek 874.541 euro egiten dute. Kasu guztietan ordainketak amaieran emandako beken diru-kopurua baino txikiagoak dira, salbu eta bi kasutan, horietan berdinak baitira.

Lau errekurtsu aurkeztu ziren, baina batean errekurtsu-egileak berak atzera egin zuen. Beste hiruak ezetsi egin ziren. Horietako batek administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu zuen, baina ezetsi egin zitzaion.

V.4. 2011ko DEIALDIA: ALDERDI OROKORRAK

Nafarroako Gobernuaren 2010eko urriaren 13ko erabakiz, baimena eman zen urte anitzeko 600.000 euroko gastua egiteko 2011n; 2012rako, berriz, 800.000 euroko gastua, eta 2012rako, azkenik, 100.000 euroko gastua.

Azaroaren 9ko 152/2010 Foru Aginduak 2011ko “Nafarroa Beken” deialdia onetsi zuen, bai eta deialdi hori betetzeko oinarriak ere.

Agindu horren 11. artikulua ezartzen du “beken kopurua 30” dela.

67 eskaera aurkeztu ziren eta eskatzaile batek uko egin zuen. 30 beka eman ziren, 1.096.477 euroko hasierako diru-kopuruarekin, 2011-2013 urteetan banatzeko. 30 eskaera horietatik, sei baldintzapean onartu ziren. Ez-onartuak 19 ziren eta 17 eskaera itxaron zerrendan geratu ziren.

Hasierako beken emateari buruz sei aldaketa egin dira, azkenekoa 2012-12-17an.

Aldaketa garrantzitsuenak honako hauen ondorioz egin dira:

- Onuradun batzuen orde bestea hainbeste sartu ziren itxaron zerrendatik.
- Gainerako aldaketak diru-zenbatekoetan eginiko doikuntzei dagozkie, eta matrikulen prezioetan izandako okerrengatik, iraupeneko hilabeteetan aldeak egoteagatik edo beka eman zirenetik ordainketa egin zenera txanponaren trukean zeuden aldeengatik gertaturiko doikuntzen ondoriozkoak dira.
- Bost onuradun gehiago sartu ziren errekurtsio baten ondorioz.

Gainera, bi aldaketa egin ziren –haiei buruzko foru agindua guk lan hau egiten ari ginen bitartean izapidetzen ari ziren–: “berariazko ez-onartze” bati buruzkoa da bata eta bekaren ematea atzera bota zen kasu bati buruzkoa da bestea; azken kasu horretan, ordaindutako zenbatekoak itzultzeko exijitu zitzaion onuradunari, eta itzulketa hori 2012ko diru-sarreran aurrekontuari egotzi zitzaion.

Aldaketa horien ondorioz, amaieran 33 beka eman ziren eta emandako kopurua, itzultitako bekari dagokion kopurua kenduta, 1.298.573 eurokoa da.

Honakoak dira eskatzaileak eta azkenean emandako beka, jakintza-arloen arabera antolatuta:

	Eskatzaileak	Emandako beka
Teknologia	21	11
Biomedikuntza	4	0
Osasun zientziak	5	5
Arteak eta giza zientziak	5	3
Gizarte zientziak	18	8
Enpresa zientziak	14	6
	67	33

2012-12-31n egindako ordainketak, itzultitako beka kenduta, 1.094.310 eurokoak dira.

Amaitutako beken kasuetan, amaierako ordainketak ehuneko sei txikiagoak dira, gutxi gorabehera, emandako diru-kopuruak baino.

Sei errekurtsio aurkeztu ziren; haietatik bi partzialki baietsi ziren, hiru baietsi ziren eta bat ezetsi zen. Azken errekurtsio-egile horrek administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu zuen. Lan hau egiteko garaian ebatzi dago errekurtsio hori.

V.5. 2012ko DEIALDIA: ALDERDI OROKORRAK

Nafarroako Gobernuaren 2012ko martxoaren 7ko erabakiz, baimena eman zen urte anitzeko 306.500 euroko gastua egiteko 2012an; 2013rako, berriz, 572.500 euroko gastua, eta 2014rako, azkenik, 100.000 euroko gastua.

Martxoaren 30eko 36/2012 Ebazpenak 2012ko “Nafarroa Beken” deialdia onetsi zuen, bai eta deialdi hori betetzeko oinarriak ere.

11. artikulua ezartzen du beka emateko, behar adinako kreditu egokiak izan behar duela. Kreditu hori agortu arte emanen dira beka.

74 eskaera aurkeztu ziren. 26 adjudikatu ziren, eta haietatik bederatzi baldintzapean zeuden. Hasierako zenbatekoa 717.063 eurokoa zen, 2012-2014 urteetan emateko. Onartu gabeko eskaerak 20 izan ziren eta 28 eskaera, berriz, itxaron zerrendan geratu ziren.

2012ko abenduaren 31ra arte, bi aldaketa onetsi dira, honako eragin hauekin:

- Zenbait doikuntza egin dira beken zenbatekoetan eta eskatzaileen puntuazio batzuetan.
- Onuradunen artean lau baja gertatu dira: bi, uko egiteagatik; bat, beka ez onartzeagatik; beste batean kasuan, azkenean, onarpen-gutuna epe barruan ez aurkezteagatik. Azken horrek errekurtsio bat aurkeztu zuen, eta baietsi egin zen. Azkenean berriz onartu zen.
- Baja bat gertatu zen masterreko matrikulazioa ez justifikatzeagatik.

Amaieran, guztira 22 beka eman ziren. Guztira emandako diru-kopurua, berriz, 631.590 eurokoa da.

Honakoak dira eskatzaileak eta azkenean emandako bekek, jakintza-arloen arabera antolatuta:

	Eskatzaileak	Emandako bekek
Teknologia	25	5
Arteak eta giza zientziak	18	2
Gizarte zientziak	16	5
Enpresa zientziak	15	10
	74	22

2012-12-31n egindako ordainketek 250.922 euro egiten dute.

V.6. DIRU-SARRERAK

Gastuen itzulketarengatik sortutako diru-sarrerez gainera –egiazki gastu txikiago bat suposatzen dute–, beken programa Europako Gizarte Funtsak kofinantziatutako ekintzetako bat izan da, 2009-2013 programa operatiboaren barruan.

Guztira 175.600 euro egiten duten bi ordainketa jaso dira. 2009ko deialdiko gastuengatik egiaztatutako diru-kopuruaren % 50 egiten du.

Finantziarioa dela-eta gastu batzuk justifikatzeak dakarren zailtasuna dela eta, eta ikusita Europako Gizarte Funtsak beste gastu batzuk ez dituela onartzen, erabaki zen gastu horiek ez aurkeztea kofinantziatuak izateko.

V.7. DEIALDIETAKO ESPEDIENTEEN AZTERKETAREN ETA EGINDAKO LAGINKETAREN EMAITZAK.

20 espediente aztertu ditugu, honako banaketa honen arabera:

Urtea	Aztertutako espedienteak
2009	5
2010	5
2011	6
2012	4
Guztira	20

Hauta-lana egin da honakoei erreparatuta: masterraren iraupena, bekaren zenbatekoa, diru-baliabideak egotea, itxaron zerrenda egotea edo onartua ez izatea.

Egindako lanean eta espediente hauen azterketan nabarmendu beharreko honako alderdiak azpimarratu behar ditugu:

- 17 herrialdetan funtzionamendu-arau desberdinak dituzten unibertsitateetarako beka kudeatzea zaila da araudi batean erregulatuta egoteko.

Zailtasun horren ondorioz eta hartzen joan den esperientziaren ondorioz, aldaketa batzuk egin dira araudian, planteatzen joan diren egoerei egokitze aldera.

- Bekak emateko xedapen-arauek ez dituzte beti eranskin guztiak jasotzen: onuradunen zerrendak, ez-onartuen zerrendak, itxaron zerrendak eta abar. Kasuren batean, zerrendak ez dira zuzenak, zeren eta ez baitituzte aipatzen egoera jakin batean dauden pertsona guztiak.

- Espedienteak, batzuetan, banatuta daude, zeren eta zati bat paperean baitago eta informazioaren beste zati, bat, berriz erregistro informatikoetan. Ez dago espedientearen informazio guztia batera biltzen duen aurkibiderik.

- Bekak emateko espedienteek ez dute jasotzen "Nafarroarentzako interes estrategikoari" dagozkion puntuazioak emateko jarraitu diren irizpideak ezagutzeko jardueren deskribapenik.

- Batzuetan ezin izaten dira identifikatu ebaluazioan parte hartzen duten ebaluazio-batzordeko kideak. Kasuren batean, lehendik izendatuta daudenek ez dute jardun, zeren eta beste pertsona batzuek ordeztu baitituzte, baina araua aldatu gabe.

- Ez dira beti araudian aurreikusitako baldintza guztiak betetzen, honako alderdi hauetan, esate baterako: ebazpena emateko epeak, jakinarazpenetarako epeak, jakinarazpenak jaso izateari buruzko agiririk –haren data zehatza jakite aldera, horrek epeetarako garrantzia baitu–, webgunean argitaratzea.

- Ez da metodo sistematikorik onuradunen karreraren jarraipena egiteko, eta ez da modu jakinik ezarri egiaztatzeko onuradunak bost urteko epean Nafarroara itzultzeko betebeharraren jarraipena egiteko ere; izan ere, azken baldintza hori ez betetzea beken zenbatekoak itzuli behar izateko arrazoia izanen litzateke. Alderdi horri dagokionez, interesatzen zaigu aipatzea nolako zailtasuna egon daitekeen praktikan baldintza hori betetzeko, zeren eta ez baitago akordiorik enpresekin; horrenbestez, onuraduna da Nafarroako enpresa edo erakundeetara etorri behar dena edo bere lana "Nafarroarentzako interes estrategikokoak" diren lanpostuetan bete behar duena. Horri dagokionez, nabarmendu beharra dago egungo krisi ekonomikoko egoerak baldintza horren betetzea zaildu dezakeela.

- Araudiko artikuluko batzuen testuek zalantzak eta errekursoak eragin dituzte; horiek, funtsean, lotuta daude behin betiko edo baldintzapeko onarpena eduki behar izatearekin eta hori justifikatzeko epeekin. Hartara, 2010ean, oinarriak zorrotz betetzen ez zituzten onarpen batzuk izan ziren, baina bestelako ukiturik ez zen egon, itxaron zerrendarik ez zegoelako. 2011n, ordea, errekurso bat aurkeztu zen arrazoi hori dela eta, eta horren ondorioz aurrez ezarritako beka-kopuruari beste bost gehitu behar izan zitzaizkion.

Nabarmendu nahi dugu, geroko deialdietan izan dituen eraginak tarteko, kasu batean Iruñeko erroldako izen-ematea egin zela beken eskariak aurkezteko epea hasten zen lehenengo egunean.

Hurrengo deialdirako, baldintza hori gogortu zen, honakoa exijituz: "Nafarroan erroldataua izatea gutxienez bost urte lehenago; horretarako, errolbaren ziurtagiri aurkeztu beharko da".

- Ikusten da beken onuradunek, oro har, ez dutela betetzen deialdietako oinarrietan informazioa emateko betebeharra epe jakin batean justifikatzeko baldintza, zeina beken xedea diren ikastaroen amaierako aprobetxamendua egiaztatzeari baitagokio. Hala eta guztiz ere, Departamentuak errekerimendua egin ondoren, aprobetxamenduari buruzko egiaztagiria aurkeztu dituzte.

- Txosten hau egiteko garaian, 21 errekurso aurkeztu dira, urteen arabera honako banaketa honekin:

Urtea	Errekurtso kopurua
2009	10
2010	4
2011	6
2012	1
Guztira	21

Hona errekurso horien egoera:

Urtea	Zenbat errekurso	Interesdunak atzera egin du	Baietsia	Partzialki baietsia	Ezetsia	Administrazioarekiko auzi errekurtoa		
						Aurkeztua	Baietsia	Ezetsia
2009	10	1	1		8	1	1	
2010	4	1			3	1		1
2011	6		3	2	1	1		Ebatzi gabe
2012	1		1					
Guztira	21	2	5	2	12	3	1	1

2009an ezetsitako bati 3.250 euro aitortu eta ordaindu zitzaizkion, ostatuko bi hilabeteri zegozkionak.

Errekurtso horiek honakoak ekarri dituzte

	Diru-kopurua
1 2009an baietsi zen	+6.500 euro
1 2009an baietsi zen, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan	+6.500 euro
2 partzialki baietsi ziren 2011n	+19.541 euro
1 2011n baietsi zen	- 7.000
1 2011n baietsi zen	0
1 2011n baietsi zen	220.227*
1 2012an baietsi zen	18.500

* Bost onuradun gehiago jasotzen ditu. Amaierako zenbatekoa 199.067 eurokoa izan zen.

- Errekurtsorik aipagarriena 2011n baietsitako bat da, zeinak berarekin ekarri baitzuen bost onuradun gehiago egotea. Bost horietatik batek ez zuen beka onartu eta lauk, berriz, bai.

Horren arrazoia izan zen akatsak zuzentzeko epeekin eta ebazpenak emateko datekin zeuden arazoak, bai eta masterreko behin betiko onarpena erakutsi beharreko unearekin ere.

Errekurtsoa baiesteko Nafarroako Gobernuaren erabakian jasotako zuzenbideko oinarriek hauxe diote: "Hartara, bada, erabaki hau betez, beka ematen dituen organoak errekurso-egilea onuradunen zerrendan sartu beharko du, eta, gainera, behar diren neurriak ezarri beharko ditu honakoa gerta

dadin: deialdiko oinarrien interpretazio oker baten ondorioz onuradun izatea, bidegabeki, lortu zutenen eskubideak kaltetu gabe, deialdiko oinarrietan ezarritakoaren arabera (hau da, eskaerak aurkezteko epearen amaieran edo, kasua bada, akatsak zuzentzeko izapidea bete ondoren behin betiko onarpena edukitzea) errekurtsio-egilea baino baremo hobea edukitzeagatik onuradun izan behar zutenak ere onuradunen zerrendan sartzea".

Txosten hau eman da indarrean den araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2013ko ekainaren 27an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

1. ERANSKINA. BEKEN ETA KOKALEKUEN ZERRENDA

Datu hauek Nafarroako Gobernuaren webgunean daude.

Urtea		Masterra eta unibertsitatea	Herrialdea	Matrikula, guztira	Bidaia-poltsa, guztira	Ostatua, mantenua eta bestelako gastuak, guztira	Beka, guztira
2009	1	Ingurumeneko ingeniartzaren arloko masterra. Melbourneko Ingeniari Eskola. Australia	Australia	22.668	1.940	16.250	40.858
2009	2	Máster of Science in Architecture, University of Illinois, Chicago, USA	Estatu Batuak	26.707	1.140	17.875	45.722
2009	3	Máster Biomedical Engineering, University of Melbourne	Australia	22.668	1.940	16.250	40.858
2009	4	Zinemagintza Ikasketen Masterra. Queen Mary Unibertsitatea. London. Erresuma Batua.	Erresuma Batua	7.096	410	13.000	20.506
2009	5	Máster Music et Musicology. Sorbonako Unibertsitatea. Paris.	Frantzia	438	360	13.000	13.798
2009	6	Máster of International Affairs-Economic and Political Developpement. Concentration en Columbia University, New York. USA.	Estatu Batuak	81.338	1.880	26.000	109.218
2009	7	Máster of Public Policy, Georgetown University, Washington, USA	Estatu Batuak	72.780	1.880	26.000	100.660
2009	8	MBA Máster of Management in Hospitality, Cornell University, New York, USA	Estatu Batuak	28.007	940	17.875	46.822
2009	9	Full Time MBA Program, University of California, Berkeley, USA	Estatu Batuak	84.292	2.920	26.000	113.212
2009	10	Neuro-onkologiaren arloko Espezializazio Berezia. Hôpital de la Sapétriére. Paris. Frantzia.	Frantzia	0	720	32.500	33.220
2009	11	Máster of Science in Taxation en Florida Internacional University.	Estatu Batuak	18.746	940	17.875	37.561
2009	12	MSc Artificial Intelligence, London City University, Erresuma Batua.	Erresuma Batua	6.224	410	13.000	19.634
2009	13	MSc Anthropology, Environment and Development, University College of London, Erresuma Batua.	Erresuma Batua	5.510	410	13.000	18.920
2009	14	Études Politiques et Administratives Européennes. Europako Ikastetxea, Brujas. Belgika	Belgika	21.000	410	350	21.760
2009	15	MSc Marketing, Grenoble Graduate School of Business. Frantzia	Frantzia	14.760	360	13.000	28.120
2009	16	Brujasko Europako Ikastetxeko European Interdisciplinary studies. Belgika	Belgika	21.000	410	159	21.569
2009	17	Msc Development Studies, School of Oriental and African Studies. London. Erresuma Batua.	Erresuma Batua	8.141	410	13.000	21.551
2009	18	MSC Physical Activity and Public Health, University Gloucestershire. Erresuma Batua.	Erresuma Batua	3.427	820	26.000	30.247
2009	19	MSc Finance and Investment, London City University. Erresuma Batua.	Erresuma Batua.	24.642	820	26.000	51.462
2009	20	Máster of Information Tecnology. University of Sydney.	Australia	20.303	1.940	13.000	35.243
2010	1	MSc in Advanced Mechanical Engineering en Imperial College London (Erresuma Batua).	Erresuma Batua.	4.287	410	12.000	16.697
2010	2	Máster's Programme Theoretical Physics. Universiteit Utrecht (Holanda)	Holanda	3.385	820	27.000	31.205
2010	3	MSc Molecular, Cellular and Developmental Biology of Plants en Universität Heidelberg (Alemania)	Alemania	2.477	865	24.000	27.342
2010	4	Metodologie Farmaceutiche Industriale en La Sapienza, Erroma, Italia.	Italia	3.118	410	9.000	12.528
2010	5	"MSc Sustainable Energy-Energy Savings" en Danmarks Tekniske Universitet (Danimarkako Unibertsitate Teknikoa)	Danimarka	0	410	12.000	12.410
2010	6	IBEAR MBA Programm en University of California, Los Angeles (USA)	Estatu Batuak	69.382	1.460	16.500	87.342
2010	7	MBA, Insead Singapur	Singapur	51.000	1.940	7.500	60.440
2010	8	MÁSTER OF INTERNATIONAL BUSINESS en La Trobe University (Australia)	Australia	19.834	1.940	13.500	35.274
2010	9	MBA en Said Business School (University of Oxford, Erresuma Batua)	Erresuma Batua	44.528	410	12.000	56.938
2010	10	MSc Sport Performance Enhancement en Napier University de Edinburgh (Erresuma Batua)	Erresuma Batua	4.638	410	12.000	17.048
2010	11	Breast Cancer Radiotherapy. New York University School of Medicine (USA)	Estatu Batuak	0	940	18.000	18.940
2010	12	Máster of Forensic Science, The University of Western Australia, Perth (Australia)	Australia	53.071	3.880	24.000	80.951
2010	13	M.Ed en Enseñanza de Inglés a Hablantes de Otros Idiomas (TESOL) en University of Georgia (USA)	Estatu Batuak	31.517	2.332	24.000	57.849
2010	14 ²³	M.Mus. (Musique (Interprétation)), Université de Montréal (Kanada)	Kanada	23.949	2.240	24.000	50.189
2010	15	MÁSTER EN ÉTUDES EUROPÉENES en Université de Genève (Suitza)	Suitza	1.775	1.020	24.000	26.795

2010	16	MSc IN ENGINEERING-NANOTECHNOLOGY en University of Pennsylvania (USA)	Estatu Batuak	51.465	940	13.500	65.905
2010	17	MA in Art Museum and Gallery Studies en University of Leicester (Erresuma Batua)	Erresuma Batua	5.374	410	9.000	14.784
2010	18	International Máster in Horticulture Science en Universita di Bologna (Italia)	Italia	2.500	410	12.000	14.910
2010	19	Msc SUSTAINABLE ENERGY TECHNOLOGIES AND MANEGEMENT en Brunel University West London (Erresuma Batua)	Erresuma Batua	4.985	410	15.000	20.395
2010	20	MSc in Aquatic Environmental Biology, Syddansk Universitet (University of Southern Denmark), Odense (Danimarka)	Danimarka	0	410	12.000	12.410
2010	21	MÁSTER OF FINE ARTES DESIGN FOR STAGE AND FILM en NEW YORK UNIVERSITY (USA)	Estatu Batuak	93.854	1.880	30.000	125.734
2010	22	MSc in Environmental Technology and Management. Danimarka, Alemania eta Erresuma Batua	Erresuma Batua	4.000	410	13.500	17.910
2010	23	Bio and Environmental Technology en Upper Austria University pf Applied Sciences (Austria)	Austria	0	610	9.000	9.610
2010	24	"MSc Architecture, Energy and Sustainability" en London Metropolitan University (Erresuma Batua)	Erresuma Batua	6.457	410	12.000	18.867
2010	25	Diplôme de Spécialisation et d'Approfondissement en Architecturebet Patrimoine du Xxème siècle-Villes Orientales en École Nationale Supérieure d'Architecture de Paris-Belleville (Frantzia)	Frantzia	998	360	12.000	13.358
2010	26	Máster Degree in Saxofon en Conservatorium Van Amsterdam (Holanda)	Holanda	3.676	410	13.500	17.586
2011	1	MSc in International Management. University College Dublin (Irlanda)	Irlanda	12.900	410	12.000	25.310
